

Hitzatzea

Robert Louis Stevenson eta altxorraren uhartea: Abentura liburuen paradigma

RUBEN RUIZ



Bidaiari baten bizitza laburra

Robert Louis Stevenson Edinburgon –Eskozia– jaio zen 1850.eko azaroaren 13an eta Samoan hil zen 1894.eko abenduaren 3an. Hortaz, gazte samar zelarik aurkitu zuen heriotza eskoziar handiak. Halere, 44 urte horietan zehar hamaika gauza egiteko tartea hartu zuen.

Txikitan, denboraldi luzeetan ez zen eskolara joan –biriketako gaixotasun baten ondorioz–. Bere etxean bertan jaso zuen eskola, bertara joaten zen tutore batekin. Eskola emateaz gain, tutore horrek –Alison Cunningham– Stevensonen egunak hainbat istorio herrikoiekin blaitu zituen. Stevensonek beti izan zuen gogoan bere txikitako zaindaria, lan batzuetan erreferentzia egin ziolarik.

Gaztaroak aldaketa handia ekarri zion eskoziarrari. Errebelde punttu bat sustraitu zitzaion; eskolara eta unibertsitatera joan zen, baina bertan, alferraren ospea irabazi zuen hainbatetan piper egiteagatik. Hasieran, ingeniari itza ikasi zuen –bukatu gabe utzi zuen–, gero zuzenbidea ikasi zuen, baina literaturaren deia gailendu zen eta hortara bideratu zituen bere indar guztiak, abokatu ogibidea alboratuz.

~ Hitzatzea ~



Bere gaixotasunak okerrera jo zuen eta tuberkulosia diagnostikatu zioten. Medikuek tratamendu moduan Eskoziako eguraldi hotza eta hezea uztea gomendatu zioten eta eguraldi goxoagoko lurraldetara abiatzea proposatu zioten.

Londres eta Frantzia aldera joan zen medikuen gomendioei kasu eginez. Frantzian zegoela Fanny Osborne ezagutu zuen 1877an. Estatubatuar hau –Fanny– bereiztua zegoen. Hurrengo udan –1878–, Fannyk, berriz ere, Estatu Batuetara bueltatu behar izan zuen; Stevenson urte bat beranduago batu zen berarekin Kalifornian.

1880. urtean Stevenson Fannyrekin ezkondu zen. Aurretik, idazlea heriotzaren hegian egon zen, izan ere, Kalifornian emandako lehenengo egun horietan ezin izan baitzuen Fannyrekin bizi, azken honek ez zuelako dibortzioaren paperik. Horri gaineratu behar zaio, egoera ekonomiko penagarri batean aurkitzen zela, eta gutxi balitz pleuresiak jota eta bakardadean zegoela gure Stevenson handia. Halere, Fannynengan aurkitu zuen erizain zintzo bat eta maitale sutsua ondoren.

1880.ean Edinburgon egonaldi baten ostean, 7 urtez ibili ziren Europan zehar, herrialde ezberdinetan, betiere Stevenson gaixotasunak aginduta.

Bere bi obra entzutetsuenak 80. hamarkadan –1880– argitaratu zituen. Lehenengoa, *Altxor uhartea*, 1883. urtean argitaratu zen liburu formatoan. Obra honek sona eta ospea ekarri zion eta oraindik ere ematen dio. Bigarrena, *Dr. Je-*

kkyll eta Mr. Hyde-ren kasu harrigarria, 1886.ean argitaratu zuen ikaragarritzko arrakasta lortuz eta, lehengo ospea sendotuz.

Dena den, Stevensonek eleberriak egiteaz gain, besterik ere egin zuen, bere literatur obra zabala bezain askotarikoa da. Bere bizitza laburrean honako generoak garatu zituen: kritika, poesia, saiakera, narratiba zein bidaiaria liburuak.

Aipagarria da Stevensonek egindako ia bidaiaria guztietatik sortu zuela literatur lan bat. Horren adibide gisa: *Lurbarruko bidaiaria* liburuak. Idazle eskoziarra ez zen turista soil bat izan, aitzitik, letra larriko BIDAIARIA izan zen.

1888. urtean bi urtez hegoaldeko itsasoetan barna nabigatu ostean, azkenik, 1890. urtean Samoan hasi zen bizitzen eta bertakoen –indigenen– eskubideak aldarrikatu zituen gogotsu.

1894.eko abenduaren 3an hil zen buruko odoljario baten ondorioz. Bertakoek Vaea sumendian lurperatu zuten 44 urte eskas zituelarik. Hil zen, askoren aburuz bere lan txukunena izango zena bukatu gabe –Weir of Herminston–.

Altxor uhartea

Altxor uhartea liburu formatoan argitaratu baino lehen, *serial* moduan argitaratu zen *Young Folks Magazin*-en 1881.eko urriaren 1etik 1882.eko urtarrilera bitartean. Robert Louis Stevensonek ezizen batekin sinatu zuen lan hori: George North Kapitaina.

Altxor uhartea R.L.S. eta bere semeordearen

~ Hitzatzea ~

–Fannyren semea– arteko jolas baten ondorioa da. Stevensonek bere semeordeari istorioak kontatzen zizkion, batzuk asmatuak beste batzuk herrikoiak. Ipuinak kontatzeko grinaren ondorioz, Samoan Tusitala ezizena ipini zioten –Tusitalak ipuin kontalaria esan nahi du–. Istorio horietako batean, erdi txantxetan, uharte bateko mapa marraztu zuen Stevensonek eta hori izan zen *Altxor uhartea* liburuaren lehenengo harri sendoa.

Eleberri honen eskemak finkatu zuen gerora sortuko ziren piraten istorio guztien egitura; besteak beste ñabardura hauek kontuan hartzekoak dira: altxorra ezkutatuta eta misterioz betetako mapa, itsasontzian emango den matxinada, lo-roaren figura sorbalda sendo baten gainean, begiko txaplata eta hankapalao.

Bestalde, *Altxor uhartea* liburuko pertsonaien gainean esan behar da mundu berezi batean bizi direla. Bertan, piraten eta gizon-onen arteko muga oso marra estua da; guztia –edonor– usteldu daitekeelarik di-da batean. Honekin batera adierazi, Stevensonek pertsonaia negatibo guztiak lehenengo kapituluetan akatuko dituela, baina jakina, hori amarru bat besterik ez da izango –gu lasaitzarren–, izan ere, gero onak ziruditenek aldaketak izango baitituzte.

Aurrekoa hobeto ulertzeko, John Long Silver pirataren analisia nahikoa litzateke. Honek mutur guztiak islatuko ditu. Aldi berean jatorra zein krudela izango da. Supituki bere izaeraren aldatzea aldatzeko gai izango da. Gai da edonor saltzeko; baita bere lagunmina bera ere, eta noski, bere etsai gogorrena ere bai. Long Johnek mirespena eta izua sortuko du irakurlearengan; erakarpen berezia sentituko du azken honek pirata horren

jenialtasunarekin eta ez du ikusi nahiko bere alderdi okerreana –alegia, Jim Hawkins gazteari gertatu zitzaion gauza bera biziko du irakurleak–.

Stevensonen nerabe ausartak

Robert Louis Stevenson-en eleberrietako protagonistak mutil koxkorrak dira; umeak, nerabeak edo gazteak; askotan horiek guztiak umezurtzak dira. Esan behar da, aurrekoa ematen dela *Dr. Jekyll eta Mr. Hyde-ren kasu harrigarria* liburuan izan ezik ia beste guztietan.

Altxor uhartean, protagonista eta narratzailea Jim Hawkins agertuko zaigu, berak aurreko pasartean aipatutako ezaugarriak betetzen ditu. Modu berean, David Balfour, *Bahituta* eleberrikoa eta Richard Shelton *Gezi beltza* liburukoa umezurtzak ziren. Ildo horretatik, aipatu Catriona ez zela umezurtza berez, baina bere aita kartzelan zuen; hori ere umezurtz izateko beste era bat da.

Stevensonek zurztasuna erabiliko du irakurlela giro berezi batean murgiltzeko eta istorioa bera bide jakin batzuetatik joan dadin, inguru osoa baldintzatuko duten bide batzuetatik. Umezurtz izateak abenturaz jositako bizitza dakarkio protagonistari. Sarritan, protagonistek abentura horiek bizi beharko dituzte giro deseroso bati aurre egiteko; nolabait biziraupena ziurtatzeko.

Umezurtz egoerak nerabeen heldutasuna bizkortuko du. Seguruenik, pertsonaiarik egokiena heldutasunaren bidea islatzeko umezurtzarena izango da.

Umezurtz izatea: libre izatea da, edozer hartzeko aukera ematen du, loturak haustea da. Protagonista umezurtza, hasieran ahula eta herabea izan daiteke, baina gero bilakaera etorriko da; abenturek helduko dute.



Hitza

Adibidez, Jim Hawkinsek bere aita galdu zuen txiki-txikia zelarrik. Ondoren amarekin geratu zen familiaren tabernan zerbitzari. Hor eman zituen Jimek urte batzuk, baina hainbat pasadizo igaro ondoren, –altxorren uhartera abiatu baino lehen–, amari agur egitera joan zenean, bertan, ikusi zuen bere amak bere adineko laguntzaile berri bat zuela; hori bakarrik nahikoa izan zuen Jimek guztiz libre sentitzeko bere burua.


Azpimarratzekoa da Stevenson en umezurtz guztiek ondoan beste heroi bat izango dutela; alditan ona, alditan gaiztoa. Normalean, nerabeek galdutako aitaren rola beteko dute.

Stevenson en lanen itzulpenak edo egokitzapenak euskaraz

1. Ahotsen isla; Deabrua botilan. K. Aulestia. Hordago. 1980.
 2. Altxorraren uhartera. Xabier Etxaniz. Elkar. 1985.
 - 3.* Gezi beltza. Chiqui de la Fuente. Kriselu. 1989.
 - 4.* Altxorraren uhartera. Carlos A. Cornejo/Chiqui de la Fuente. Kriselu. 1989.
 5. Dr. Jekyll eta Mr. Hyde. Xabier Galarreta. Txertoa. 1990.
 6. Altxor uhartera. Maria Garikano. Ibaizabal. 1991.
 7. Botilako deabrua. Maria Garikano. Elkar. 1992.
 8. Altxor uhartera. Iñaki Mendiguren. Elkar. 1994.
 9. Ballantraeko premua. Xabier Olarra. Igela. 1994.
 10. Bahitua: David Balfourren abenturak. Igela. 1994.
 11. Ahotsen irla. Alex Aldekoa/Ana Arakistain. Desclée. 1995.
 12. Fabulak. Agurtzane Duce Zubillaga. Desclée. 2003.
- * (3-4 komikiak)

Bibliografia

1. CLIJ aldizkaria, 33. zenbakia. R.L. Stevenson monográfico. 1991.
2. ROBERTO COTRONEO. (1995). Si una mañana de verano un niño. Madril: Taurus.
3. FERNANDO SAVATER. (2002). Poe y Stevenson dos amores literarios. Santander: Límite.
4. GHAMAN BALFOUR. (1994). Vida de Robert Louis Stevenson. Madril: Hiperión.
5. ROSA MONTERO. (2000). Pasiones –amores y desamores que han cambiado la historia–. Bartzelona: Suma de letras.



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.
Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria: Posta-kodea:

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (15 €)

Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 1

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkarte. Artzain Onaren plaza, 15-1. ezk. 20015 Donostia